Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko irailaren 15a, ostirala — 177 — Viernes, a 15 de septiembre de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ITSASONDOKO UDALA

*Bizikletak gordetzeko lizentzien arautegia*

Udalbatzak 2017ko otsailaren 6ean egindako bilkuran hasierako onespena eman zion Bizikletak gordetzeko Lizentzien esleipenerako araudiari. Onarpenari dagokion espedientea alegazioetarako jendaurrean utzi zen (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA 39 alea, 2017ko otsailaren 24koa, eta ediktuen oholean) eta inork ez duenez alegaziorik aurkeztu, araudia behin betiko onartutzat ematen da eta, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluak eskatu bezala, behar den zabalkundea ematen zaio.

BIZIKLETAK GORDETZEKO LIZENTZIEN ESLEIPENERAKO ARAUTEGIA

*Zergatik zerbitzu hau?.*

Itsasondon mugikortasunaren gaiari ekitea oso kontu interesgarria da. Bide gorri sare itzela dugu bai Ordizi aldera, baita Legorreta aldera ere. Gaur egun, herritar askok erabiltzen dute sare hori, hasi haur eta familietatik eta jubilatu talderaino, batzuk kirola egiteko, besteak beste herrietara joateko.

Honela, udalak mugikortasun aktiboa sustatu nahi du, izan ere, honek abantaila itzelak ditu: aukera ematen du beste herrietara modu autonomoan iristeko, ariketa fisikoa egiten da eta sedentarismoari, obesitateari eta aktibitaterik gabeko bizimoduari lotutako gaitzei aurrea hartzeko modua da. Gainera, jarduera fisikoak lagundu egiten du bai oreka emozionala izaten.

Aldi berean, motor bidezko joan etorria murrizteak onurak dakartza berekin, hala maila sozialean oro har nola ingurumenarentzat, murriztu egiten direlako hainbat arazo global; ala nola kutsadura eta CO2 ren emisioak, ibilgailu metaketak, zaratak.

Beste alde batetik, itsasondoko udalak kontsumo arduratsu eta jasangarri baten aldeko apustua egiten jarraitu nahi du.Hain zuzen ere, ingurumena babestu eta gizartean justizia eta berdintasuna bermatu nahi dituen politikak sustatzen.

Horretarako bizikletak gordetzeko eta bestelako materiala gorde eta berrerabiltzeko txokoa prestatu da itsasondoko herritarrentzat.

*Zertarako zerbitzu hau?.*

— Helburu orokorrak.

1. Mugikortasun gaia lantzen jarraitzea (Agenda 21).

2. Kontsumo arduratsu eta jasangarria sustatzea.

3. Ingurumena babestea.

4. Gizartean justizia eta berdintasuna sustatzea.

— Helburu zehatzak.

1. Norbere Bizikletak gordetzeko txokoa izatea.

2. Mugikortasun aktiboa sustatzea.

## AYUNTAMIENTO DE ITSASONDO

*Normativa licencias aparcamiento bicicletas*

Aprobado inicialmente por el Pleno municipal de 6 de febrero de 2017 la normativa reguladora del uso del almacén para compartir material y sometido a exposición pública el expediente de aprobación (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa núm. 39 de 24 de febrero de 2017, y tablón de edictos) sin que se hayan presentado alegaciones, se considera definitivamente aprobado dicho reglamento y se procede a su publicación conforme a lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las bases de Régimen Local.

NORMATIVA PARA LA ADJUDICACIÓN DE LICENCIAS PARA EL APARCAMIENTO DE BICICLETAS

*Motivo de este servicio.*

En el municipio de Itsasondo resulta necesario abordar el tema de movilidad. El municipio dispone de una amplia red de vías ciclistas, tanto en dirección a Ordizia, como en dirección a Legorreta. En la actualidad, esta red de vías ciclistas tiene un uso muy extendido, desde niños/as y familias a grupos de personas jubiladas, tanto para fines deportivos como para fines de desplazamiento.

De esta forma, el Ayuntamiento pretende fomentar la movilidad activa, ya que presenta grandes ventajas: además de dar la oportunidad de realizar desplazamientos a municipios contiguos de forma autónoma, al mismo tiempo se realiza actividad física, por lo que es también una forma de prevenir el sedentarismo, la obesidad y enfermedades relacionadas con una forma de vida sedentaria. Además, la actividad física contribuye a un mejor equilibrio emocional.

Al mismo tiempo, la reducción de desplazamientos en vehículos de motor tiene también ventajas tanto a nivel social como a nivel medioambiental, ya que se reducen ciertos problemas globales tales como contaminación, emisiones de CO2, atascos, ruidos.

Por otro lado, el Ayuntamiento de Itsasondo pretende seguir haciendo una apuesta por el consumo responsable y sostenible. Concretamente, mediante el fomento de políticas de protección del medio ambiente y políticas a favor de la justicia y la igualdad.

Para ello, se ha dispuesto un rincón o txoko como aparcamiento de bicicletas y reutilización de otros materiales, que estará a disposición de los vecinos y vecinas de Itsasondo.

*Objetivo de este servicio.*

— Objetivos generales.

1. Dar continuidad al trabajo que se está realizando en el ámbito de la movilidad (Agenda 21).

2. Fomento del consumo responsable y sostenible.

3. Protección del medio ambiente.

4. Fomento de la justicia e igualdad social.

— Objetivos específicos.

1. Disponer de un lugar donde los vecinos y vecinas puedan guardar su bicicleta.

2. Fomento de la movilidad activa.

EK\CV GAO-I-2017-06289

*Zer da zerbitzu hau?.*

Herritarrek, norberan bizikletak gordetzeko txokoa izango da.

Zer gorde ahal izango da: bizikletak.

Plaza kopurua: 15.

Zerbitzuaren azalpena: Herritarrek, norberan bizikletak gordetzeko txokoa izango da.

*Erabilpen erregimena eta prezioa.*

Bizikleten aparkaleku plazak erabiltzeko beharrezkoa izango da administrazio kontzesioa, erabilera pribatua baitakar berarekin. Erabiltzeko baimenak prekarioan emango dira. Eskatzaile bakoitzari plaza baten erabilpena onartuko zaio.

Iraupena: Urte bat, hiru urteko epea bete bitarte luzatuko dena, eskatzaileak aurrez erabilpenaren baja eskaera aurkezten ez badu.

Erabilpen ordutegia: egun osoa.

Bizikletak gordetzeko lekua:

1. Txartel bidez erabiltzaileak atea nahi duenean irekitzeko aukera izango du (liburutegi eta jolas txokoan bezala).

2. Astelehenetik igandera.

Fidantza: 0 €.

Kanona: Bizikleten aparkaleku plaza erabiltzeagatik urteko kanona 10 € izango da. Inporte hori eskaera onartutakoan ordaindu beharko da. Erabilpenaren baja urtea amaitu baino lehen gertatuko balitz, ez da izango erabili gabeko epearengatiko kanonaren zati proportzionala jasotzeko eskubiderik izango.

*Norentzat dago zuzenduta zerbitzu hau?.*

Onuradunen baldintzak zeintzuk izan behar dira: Bizikleten aparkalekua erabiltzeko plaza eskuratu ahal izango dute Itsasondon bizi eta erroldaturik dauden herritarrek. Plaza kopurua murritza denez, printzipioz familia bakoitzeko plaza bat baino gehiago ez da onartuko. Plaza librek geratu ez gero, plaza bat baino gehiago esleitu ahal izango da.

Adin txikikoek gurasoen baimenarekin bizikleten aparkalekua erabili ahal izango dute, baina eskaera eta plazaren adjudikazioa beti gurasoen izenean egingo da.

Bete beharreko baldintzak: Itsasondoko udalarekin zerga betebeharrak egunean edukitzea.

Plaza kopurua baino eskaera gehiago balego, zozketga bidez esleituko dira.

*Eskaerak aurkezteko epea eta lekua /aurkeztu beharreko dokumentua.*

Zerbitzua erabiltzeko nahitaezkoa da interesatuek beren eskabideak aurkeztea plegu honetako I eranskinean azaltzen den eskaera-orria erabilita.

Eskaera-orriak behar bezala beteta aurkeztuko dira Udaleko informazio bulegoan, Udalak ezarritako epea bete aurretik. Bulego ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Onartua izateko baldintzak egiaztatzeko, eskaera-orriarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu behar da.

a) NA edo berorren ordezko den beste agiri legalen baten fotokopia.

b) Ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak edo zinpeko aitorpena (II Eranskinaren modeloaren arabera).

*¿En qué consiste este servicio?.*

Consiste en un txoko o aparcamiento donde los vecinos y vecinas puedan guardar su bicicleta.

Objetos que se pueden guardar en él: bicicletas.

Número de plazas: 15.

Definición del servicio: Es un txoko (o aparcamiento) donde los vecinos y vecinas pueden guardar su bicicleta.

*Régimen de uso y precio.*

Para poder disponer de una plaza de aparcamiento de bicicletas será necesario obtener una concesión administrativa, ya que tiene la condición de uso privado. Las licencias de uso se concederán a título de precario. A cada usuario o usuaria se le concederá una licencia de uso correspondiente a una plaza da aparcamiento.

Duración: Un año, prorrogable a un máximo de tres años, en caso de que la persona usuaria no presente solicitud de baja en un plazo anterior.

Horario de uso: todo el día.

Aparcamiento de bicicletas:

1. La persona usuaria podrá emplear su tarjeta para abrir la puerta en cualquier momento (al igual que en la biblioteca o en el jolas txoko).

2. El aparcamiento se podrá utilizar de lunes a domingo.

Fianza: 0 €.

Canon: El canon anual por el uso de la plaza de aparcamiento de bicicletas será de 10 €. Dicho importe deberá ser abonado una vez admitida la solicitud. En caso de que la baja se solicite antes de final de año, se perderá el derecho a percibir la parte proporcional del canon correspondiente al tiempo en el que servicio no se haya utilizado.

*¿A quién está dirigido este servicio?.*

Condiciones a cumplir por las personas beneficiarias: Podrán optar a una de las plazas de aparcamiento de bicicletas las personas que residan y estén empadronadas en el municipio de Itsasondo. Al tratarse de un número reducido de plazas, en principio, solamente se concederá una plaza por familia. En caso de que queden plazas libres, se podrá conceder más de una por familia.

Las personas menores de edad podrán utilizar el aparcamiento de bicicletas, siempre que cuenten con el permiso de sus progenitores; no obstante, la solicitud y la adjudicación de plaza se realizará siempre a nombre de los progenitores.

Condiciones a cumplir: Estar al día en las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Itsasondo.

En caso de haber más solicitudes que el número disponible de plazas, éstas se concederán mediante sorteo.

*Plazo y lugar para la presentación de solicitudes / documentación a presentar.*

Para poder utilizar este servicio es imprescindible presentar el impreso de solicitud adjunto a este pliego.

Los impresos de solicitud deberán presentarse debidamente cumplimentados en la Oficina Municipal de Información, antes de que finalice el plazo establecido. Horario de la oficina: de lunes a viernes, de 08:30 a 14:00.

Documentación a presentar. Para poder comprobar las condiciones exigibles para la admisión, junto con el impreso de solicitud se deberá presentar la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI o del documento legal identificativo equivalente.

b) Documentos acreditativos del cumplimiento de las condiciones exigidas, o en su defecto, declaración jurada en la que se indique que se cumplen dichas condiciones (mediante el modelo del Anexo II).

EK\CV GAO-I-2017-06289

*Onartutakoen behin betiko zerrenda eta adjudikazoa.*

Udalak ofizioz egiaztatuko du erroldatzea eta erresidentzia benetan hala direla, arauhausterik batere ez dagoela eta Udalaren zerga-betebehar edo beste mota bateko betebehar guztietan egunean dagoela. Udalak eskatzaile bakoitzari eskatu ahal izango dio egoki iruditzen zaion edozein dokumentazio gehigarri, eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Jarraian onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda prestatuko da eta udaleko iragarki taulan argitaratuko da 10 eguneko epean, interesatuek egoki eritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Jasotako erreklamazioak ebatzi ondoren, alkateak behin betiko zerrenda onartuko du. Hartutako erbakiaren berri eskatzaile guztiei emango zaie. Plaza egokitzen zaien herritarrek txartela jaso eta urteko kanona ordaindu beharko dute 15 eguneko epean. Horrela egingo ez balitz egokitutako plazaren erabilpena interesatzen ez zaiela ulertu ahal izango da.

Plaza egokitu ez zaienekin itxaron zerrenda prestatuko da eta gertatu daitezkeen bajak kubritzeko erabili ahal izango da.

Hiru urteko erabilpen epea igaro aurretik, deialdi berri bat egingo da, bizikleten aparkaleku plazak esleitzeko prozedura berri bat burutzeko.

Edozein eratan plaza libre dauden bitartean, haserako deialditik kanpoko eskaerak zuzenean onartu ahal izango dira, bete beharreko baldintzak betetzea izango delarik baldintza bakarra.

*Erabiltzailaren betebeharrak eta erantzunkizunak.*

— Prezioa ordaintzea.

— Urteko kanona ordaintzea.

— Giltzaren erabilpen arduratsua. Giltza galdu ezkero, udalari horren berri eman beharko dio ahal den azkarren eta aparkaleku plazaren esleipendunak berria ordaindu beharko du.

— Edozein kasutan esleipenduna baja egoerara pasatzen bada, Udalak giltza blokeatu ahalko du.

— Baja eman eta 48 ordutan giltza bueltatu beharko zaio Udalari. Bueltatu ezean, giltza blokeatuko da.

— Baja eman eta 48 ordu eta gero bizikleta aparkalekuan jarraituz gero, Itsasondoko Udalak bizikleta kentzeko eta gordailuan jasotzeko eskubidea izango du. Urte bat pasa eta gero udaletxearen esku geldituko da bizikleta.

— Erabiltzaile orok izango du ingurunea eta instalakuntzak modu egokian erabiltzeko betebeharra. Gainontzean, erabiltzaile zerrendatik baja emango zaio.

— Aparkaleku bakoitzean bizikleta bat aparkatu ahalko da gehienez.

— Udalak ez du inolako erantzunkizunik izango bizikleten aparkalekuko instalakuntzetan gerta daitezken lapurreta, kalte edota aparkalekuaren helburuarekin zerrikusirik ez duen bestelako gertaeren inguruan.

— Erabiltzaileren batek, aparkalekuaren erabilpen desgokiagatik, sor ditzazken arazoak edo gorabeherak tarteko, Udalak beharrezkoak diren neurriak hartu ahalko ditu arazo iturria eteteko; horien artean, erantzuleari lizentzia kentzea.

Itsasondo, 2017ko irailaren 11.—Alkatea.

(6289)

*Lista definitiva de personas admitidas y adjudicación.*

El Ayuntamiento comprobará de oficio el cumplimiento de las condiciones de empadronamiento y residencia en el municipio de las personas solicitantes, la inexistencia de infracciones y el hecho de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales para con el Ayuntamiento y resto de obligaciones. El Ayuntamiento podrá pedir a cada solicitante la documentación adicional que considere oportuna para comprobar que cumple los requisitos exigidos. A continuación se elaborará el listado de personas admitidas y excluidas y se publicará en el tablón municipal de anuncios durante 10 días, para que las personas interesadas puedan presentar las reclamaciones que consideren oportunas.

Tras la resolución de las reclamaciones recibidas, el alcalde aprobará el listado definitivo. Se dará cuenta de la decisión adoptada a todas las personas solicitantes. Las personas a las que se les haya adjudicado plaza deberán recoger la tarjeta y abonar el canon anual en un plazo máximo de 15 días. En caso contrario, se entenderá que no están interesadas en uso de la plaza.

Se elaborará una lista de espera que se empleará para cubrir las bajas que se puedan producir.

Antes de finalizar el plazo máximo de tres años, se anunciará una nueva convocatoria para una nueva adjudicación de plazas de aparcamiento de bicicletas.

No obstante, en tanto que haya plazas libres, se podrán adjudicar plazas directamente fuera del procedimiento inicial, con la única condición del cumplimiento de los requisitos exigidos.

*Deberes y responsabilidades de las personas usuarias.*

— Pago del precio.

— Pago del canon anual.

— Uso responsable de la llave. En caso de pérdida de la llave, el hecho deberá ser comunicado al Ayuntamiento a la mayor brevedad posible, y la persona adjudicataria de la plaza deberá abonar el coste de la nueva llave.

— En cualquier caso, si la persona adjudicataria de la plaza pasa a estar en situación de baja, el Ayuntamiento podrá bloquear la llave.

— Tras darse de baja, la persona adjudicataria deberá devolver la llave al Ayuntamiento en un plazo máximo de 48 horas. En caso de no producirse la devolución, se procederá al bloqueo de la llave.

— Si tras las 48 horas siguientes a producirse la baja de la persona usuaria la bicicleta sigue estacionada en la plaza, el Ayuntamiento de Itsasondo tendrá derecho a retirar la bicicleta y almacenarla en el depósito municipal. Si tras un año la bicicleta no se reclama, ésta quedará en manos del Ayuntamiento.

— Todas las personas usuarias deberán respetar el entorno y emplear las instalaciones de forma responsable. En caso contrario, se procederá a dar de baja a la persona usuaria que no cumpla con dicha condición.

— En cada plaza de aparcamiento se podrá estacionar una sola bicicleta.

— Cualquier responsabilidad que pueda derivarse de los posibles robos, daños u otros sucesos ajenos al objeto del aparcamiento y producidos en las instalaciones del aparcamiento de bicicletas, no implicará responsabilidad alguna para el Ayuntamiento.

— Cuando existan problemas por el uso inadecuado de las instalaciones por parte una persona usuaria, el Ayuntamiento tomará las medidas necesarias para atajar el problema, entre ellas, la revocación de la licencia a la persona responsable.

Itsasondo, a 11 de septiembre de 2017.—El alcalde.

(6289)

EK\CV GAO-I-2017-06289